Zenb_Num: 20
2017ko urtarrila
UDAL INFORMAZIO
ALDIZKARIA
www.orozko.eus

# orozkogaur



## Aprobada en pleno la ordenanza reguladora de las ayudas para promover el alquiler de vivienda vacía

Según los datos ofrecidos por INE en 2011, Orozko es el pueblo de más de 2.000 habitantes con más viviendas vacías de la Comunidad Autónoma Vasca, superando el 30%. Ante esta situación, el Ayuntamiento quiere promover el alquiler de las viviendas vacías a través de la ordenanza aprobada en pleno y los programas de Alokabide Bizigune y ASAP.

Bizigune consiste en que el propietario ceda a Alokabide el derecho de usufructo de su vivienda por plazo de seis años, a cambio de una renta mensual que consiste en el 65% del precio de mercado de los arrendamientos en Orozko, con un tope de 450 euros mensuales. Por otra parte, en el programa ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa/ Alquiler Seguro, Precio Razonable) Alokabide actúa como intermediario entre el arrendador y el inquilino, garantizando el pago de las rentas mediante la suscripción de contratos de seguros contra impagos.

Los que pongan su vivienda a disposición de estos programas de Alokabide podrán recibir ayudas de hasta 1.000 euros para la realización de obras y un máximo de 100 euros para los certificados de eficiencia energética. Además, el Ayuntamiento complementa con 50 euros mensuales la renta que Alokabide paga al propietario. Aparte de eso, también habrá modificaciones del 95% en el ICIO para realizar obras cuyo objetivo sea entrar dentro de estos programas de alquiler. Las viviendas que estén en estos programas, tendrán un 50% de bonificación del IBI.

En definitiva, el objeto de la presente ordenanza es regular las ayudas reseñadas con el fin de movilizar el parque de viviendas vacías en Orozko para que las mismas se adscriban a los programas de Alokabide.

## Futbol zelaiko berdegunea aldatu du Udalak

Udal futbol zelaiko berdegunea aldatzeko lanak joan zen urriaren 24an hasi ziren eta, aurreikusi bezala, lau asteren buruan amaituta zeuden. Aldaketaren funtsezko arrazoia lehengo zelaiaren antzinatasuna izan da, 19 urte zituen eta azken boladan arazo fisikoak sortzen hasia zen. Aldaketa aurrera eramateko konkurtso publiko bat atera zen 149.000 euroren truke (BEZa barne); enpresa irabazlea Mondo Ibérica izan zen 145.200 euroko eskaintzarekin. Azkenean, lan hauen kostua 149.600 eurokoa izan da eta horietatik 45.979,10 euro Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazio eta Erakunde Harremananetarako Sailak diruz lagunduak izan dira.

### Hobekuntza ugari

Berdegune berria kautxuzkoa da, materia organikoarekin (kortxoa) nahastuta. Horretaz gain, aldaketak hainbat hobekuntza ekarriko ditu: Futbol 7 eta Futbol 11n jokatzeko ateen hornitzea, ateen atzean baloiak gelditzeko sareak jartzea, markagailua, aulkiak, etab.



# Pagatzandura eramaten duen bidea konponduta dago



Pagatzandu auzora eramaten duen bidearen konponketa lanak amaitu dira, Pagatzandu bera eta Murueta auzoen artekoak hain zuzen ere. Konpondutako tarteak 1200 metroko luzera du eta Udalaren inbertsioa 32.000 eurokoa (BEZik gabe) izan da. Lan hauek, bideen konponketa planaren barnean daude, plan honetan konpondu beharreko bideen zerrenda bat dago eta lehentasun mailaren arabera hasten dira konponketa lanak. Behin Zaloa eta Pagatzandu auzoetako bideak konponduta, Mantzarraga, Gallartuko etxeeen arteko gunea eta Garaigorta auzoetako bideen konpoketei ekingo zaie.

## Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana urtebetez luzatu du

Orozkoko Udalak lehenengo aldiz Euskara Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuenetik hamabi urte igaro dira, garai hartan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia deiturikoa. Lehenengo ESEP hura 2004-2008 urteerarako onartu zen, ondoren 2008-2012rako eta azkenik, 2012-2016 urteetarakoa. Orain Udalak beste urtebetez luzatuko du, 2017ra arte. Luzapen hau, Eusko Jaurlaritzak diseinatutako epealdien barruan sartzeko gauzatuko da (2012-2017). Horrela, inguruko udalerriekin (Ugao-Miraballes, Arrankudiaga, Arakaldo…) batera arituko da Orozkoko Udala, hauetan 2017 urteko abendura arte baitago plana indarrean.

Plan honen bidez Udalak landu nahi dituen esparruak hiru dira. Lehenengo, ondorengoetaratzea, horretarako euskararen transmisioa bultzatuko da irakaskuntzan, euskara ikastaroetan eta familian. Bigarren, erabilera dago, administrazioan, teknologia berrietan eta enpresa eta komertzioetan euskararen erabilera sustatuz. Azkenik, elikadura, Udalak euskararen kalitatea zaintzeaz gain (egokia eta zuzena izanez), liburugintzan (liburutegia), kulturgintzan eta euskara erabiltzen duten hedabideak lagunduz, herritarren euskara maila hobetu nahi du.

## Jolas-txokoa martxan da bigarren urtez

Azaroan hasi eta ekainera bitartean, 0 eta 5 urte arteko umeek neguko Jolas-txokora hurbiltzeko aukera izango dute. Elkartzeko egunak astearteak eta ostegunak izango dira, gaztetxokoan. Umeek, egun horietan, beraien guraso edo tutoreek lagunduta, hurbilekoekin harremanak estutzeko aukera izango dute arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

**Bigarren edizioa**

Aurtengoa bigarren urtea izango da Jolas-txokoa erabilgarri dagoela, iaz jarri baitzen martxan lehen aldiz. Gaztetxokora doazenek, beraien esku jartzen diren jolas eta material ugari erabili ahal izango dituzte. Beharrezkoa da umeak gurasoekin edo tutoreekin joatea, bertan ez baita begiralerik izango. Egitasmoaren helburu nagusia, Orozkoko umeek beraien adin antzekoa dutenekin harremanak sendotzea da, eta bide batez, gurasoekin ere bai. Jolas-txokora joateak ez du inolako kosturik izango eta ez da beharrezkoa aurretik izena ematea.

## Orozkon 'Erosketak euskaraz'

Euskararen Nazioarteko egunean, abenduaren 3an, Udalak 'Erosketak euskaraz' kanpaina jarri zuen martxan. Orozkon euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, herriko komertzioetan euskera erabiltzen zutenei zozketa baterako txartelak banatu zitzaizkien. Lesakako Atxaspi hotelean bi pertsonarentzako gau bat eta gosaria zozkatu ziren Santa Luzia azokan. 0172 izan zen zenbaki saritua eta Ekhi Garai Sichakak eskuratu du saria Kera arropadendan lortu zuen txartelari esker.

Ekimen honetan parte hartu duten establezimenduak, Arrugaeta Jatetxea, Batzokia, Ekilore, Ezpelabarri, Garai Nekazalturismoa, Gure Arrandegia, Igorren Baztertxue, Ikusi-Makusi, Itxina, Iza Jatetxea, Kera Arropadenda, Yolanda Mertzeria eta Zubiaur kafetegia dira. Gainera, Induman, Orozkoko Museoan eta Udaletxean ere txartelak banatu ziren, zalantzak argitu zein bestelako tramiteak egiteko euskara erabiltzearren.

## Orozko quiere poner freno al descontrol con los perros

El Ayuntamiento quiere acabar con el problema de la suciedad y falta de higiene que generan los excrementos caninos en las calles del municipio. Para ello, ha modificado la ordenanza local que regula la tenencia y protección de animales. A partir de ahora, aquellos que no recojan las heces de sus animales de compañía en las calles de Orozko se arriesgan a ser sancionados con multas de entre 150 y 600 euros. El objetivo de esta medida es mantener limpio el pueblo, algo para lo que el Ayuntamiento pide la colaboración de todos y todas.

# Hainbat ekintza egin dira azaroaren 25aren harira indarkeria matxista gaitzezteko




Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Hori dela eta, azaroaren 22an hasi eta abenduaren 2ra arte hainbat ekintza antolatu ziren herrian indarkeria matxista gaitzezteko. Lehenengo ekintza puntu lilak banatu eta jartzea izan zen, ostalaritzarako puntu liladun ezpainzapiekin batera. Ostegunean, azaroak 24, 'Beldur Barik Jarrera 2016' eskualdeko lehiaketako sariak banatu ziren Laudioko CMFPn. Ostiralean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egin zen Udaletxeko plazan arratsaldeko 19:00etan, bertan adierazpen instituzionala irakurri zen. Ondoren, arte eszenikoen txanda izan zen, 'Matxintxu' emakumeen elkarteak antolatutako 'Gure gorputzen eta bizitzen jabe' titulupean. Bertaratu zirenek eskutik helduta zirkulu bat osatuta amaitu zen ekitaldia.

Egun batzuk geroago, azaroaren 28an, genero indarkeriaren gaineko hitzaldia eman zuen Ertzaintzak kultur etxean. Azkenik, abenduaren 2an, Emakundek 'Berdintasunerako Foroa 2016' autobusa antolatu zuen Udaletxeko plazan.

## Santa Luzia azokak eta Terreña txapelketak arrakasta handia izan dute, beste behin ere

Joan den abenduaren 17an ospatu ziren urteroko Santa Luzia azoka eta X. Euskadiko Terreña txapelketa. 26 baserriko produktore eta 26 artisau etorri ziren eta pertsona ugari bildu ziren elikadura eta artisautza salmenta postuen inguruan. Hanburgesa dastaketak ere arrakasta itzela izan zuen, terreña haragiarekin egindako 700 hanburgesa banatu ziren. Posturik onenaren saria Lorea Momeñek (Orozko) irabazi zuen, Rosario Etxebarriak (Gatika) hortuari onenena, Janire Goikuriak (Orozko) ogirik onenarena, Larrabe S.C.-k (Aguiñiga) gaztairik onenarena eta Julen Martinez de Santosek (Kuartango) ganadutegi onenarena.



## Habrá más actividades con perros en el 2017

A finales del mes de noviembre el Ayuntamiento organizó una charla en el Gaztetxoko para niñas a niñas y niños de a partir de 12 años a través de una empresa que trabaja con perros. Una educadora social, acompañada por uno de los perros, trabajó junto a los chavales las relaciones sociales, la tolerancia, la autoestima, la educación, etc.Todos ellos valores que les sirvan para ser mejores personas.

Viendo los buenos resultados que da el trabajar con estos animales, el Ayuntamiento ha previsto poner en marcha un programa destinado a niñas y niños que requieren de un apoyo especial en su aprendizaje. Será a partir de enero y hasta que finalice el curso (fecha aproximada).

## Agua potable y saneamiento a Katadio

En los próximos meses se va a abastecer a Katadio de agua potable y de saneamiento. Ya está en marcha la obra que corresponde al pozo séptico y a la urbanización del barrio para dejar colocada la red abastecimiento. En 2017 se realizará el resto del proyecto, que consistirá en llevar el agua desde el depósito de Meaza hasta Katadio.

El proyecto inicial es de 170.000€ y tiene una subvención del departamento de Desarrollo Rural de GV del 54%. A lo largo de las próximas fechas el Ayuntamiento buscará los acuerdos con los propietarios para la cesión de la servidumbre para el paso de la tubería a lo largo del tramo Meaza-Katadio.

## Llamada al civismo tras los últimos actos vandálicos

En los últimos meses han sucedido una serie de actos vandálicos en Orozko que han provocado importantes daños materiales, tanto a bienes del municipio como a particulares, pudiendo haber provocado graves daños personales. El Ayuntamiento llama a la sensatez y colaboración ciudadana con el objetivo de evitar que se repitan estas actuaciones y en pro de la seguridad ciudadana y buena convivencia en nuestro pueblo.





## OROZKO, GARBIAGO

Conservar limpio nuestro pueblo es tarea de todos/as. Os pedimos colaboración para que recojáis los excrementos de vuestros perros, si los tenéis, y llevéis al Garbigune los residuos que no caben en los contenedores, en lugar de dejarlos en el suelo.
ESKERRIK ASKO.

## telefonoak

- **Udaletxea**. 94 633 96 33 / 94 633 96 85 / 94 633 05 44
- **Larrialdiak**. 94 633 05 64
- **Osasun zentroa.** 94 633 05 64 Fax. 94 633 99 35
- **Botika.** 94 661 00 76
- **Ikastetxe publikoa.** 94 633 96 15
- **Kiroldegia.** 94 633 99 90
- **Haurreskola.** 94 633 97 13
- **Gaztetxokoa-Induma.** 94 633 99 45
- **Museo Etnografikoa.** 94 633 98 23
- **Gurutze Gorria.** 94 426 37 30
- **Tele-Taxi Bizkaia.** 94 444 88 88
- **Autobusa.**
- **Bizkaibus.** 902 22 22 65
- **La Unión.** 94 439 50 77
- **Aireportua.** 94 453 23 06
- **Suhiltzaileak.** 94 492 31 16
- **SOS deiak.** 112
- **Ertzaintza.** 94 406 36 60
- **Turismo Bulegoa.** 94 612 26 95

## AUTOBUSEN ORDUTEGIA:

A3613 OROZKO-BILBAO-OROZKO
OROZKOTIK IRTEERAK / SALIDAS DE OROZKO
Laneguneta eta larunbatetan / Laborables y sábados:
07:20 08:20* 09:20# 10:20* 11:20 12:20 13:20 14:20 15:20 16:20* 17:20 18:20 19:20 20:20* 21:20
Jai egunak / Festivos:
08:10 09:10* 10:10# 11:10 12:10 13:10 14:10 15:10# 16:10* 17:10 18:10 19:10# 20:10* 21:10 22:10
* 5 minutu lehenago ateratzen dira Ibarratik / Salen 5 minutos antes de Ibarra
# 5 minutu lehenago ateratzen dira Uribiartetik / Salen 5 minutos antes de Uribiarte.

BILBOTIK IRTEERAK / SALIDAS DE BILBAO A OROZKO:
Laneguneta eta larunbatetan / Laborables y sábados:
06:50* 07:50# 08:50* 09:50 10:50 11:50 12:50 13:50 14:50 15:50 16:50* 17:50 18:50 19:50 20:50
Jai egunak / Festivos:
07:35* 08:35# 09:35 10:35 11:35 12:35 13:35# 14:35* 15:35 16:35 17:35# 18:35* 19:35 20:35 21:35
* Ibarraraino heltzen dira / Llegan hasta Ibarra
# Uribiarteraino heltzen dira / Llegan hasta Uribiarte

Salidas de ARETA (Estación) a OROZKO:
Astelehenetik ostiralera (lanegun direnean) / De lunes a viernes laborable:
13:30 14:00 14:30 15:00 15:30 16:00 16:30 17:00 18:30 19:00 19:30 20:00 20:50* 21:50*
* Irteera hauek Bilbotik datorren A3616 linearekin egingo dira. Gainerako irteerak A3641 linearekin egingo dira / Estás salidas se darán con la línea A3616 procedente de Bilbao. El resto de salidas se realizarán con la línea A3641.

A3641 OROZKO-ARRIGORRIAGA - Hospital Galdakao Ospitalea
OROZKOTIK IRTEERAK / SALIDAS DE OROZKO
Astelehenetik larunbatera (lanegun direnean) / De lunes a sábado laborable:
06:50* 07:50 08:50 10:50 12:50 14:50# 15:50 16:50 19:50# 20:50
*06:50etako zerbitzua Laudioraino heltzen da eta han, Urduñatik datorren A3641 linea har daiteke. 07:00etan Laudiotik Orozkora ematen du zerbitzua / El servicio de 06:50 sólo llega hasta Laudio y se puede hacer transbordo con la línea procedente de Urduña. A las 07:00 da servicio de Laudio a Orozko.
#5 minutu lehenago irteten dira Uribiartetik / Salen 5 minutos antes desde Uribiarte. Jaiegunetan ez dago zuzeneko zerbitzurik / Los días festivos no hay servicio directo.

IRTEERAK OSPITALETIK / SALIDAS DESDE EL HOSPITAL A OROZKO:
Astelehenetik larunbatera (lanegun direnean) / De lunes a sábado laborable:
06:25 08:25 10:25 12:25# 13:25 14:25 17:25# 18:25 21:25
#Uribiarteraino heltzen dira / Llegan hasta Uribiarte.
Oharra: 07:00etan Laudiotik Orozkora emaraten duen zerbitzua dago. Nota: A las 07:00 hay servicio de Laudio a Orozko. Jaiegunetan ez dago zuzeneko zerbitzurik / Los días festivos no hay servicio directo.

# agenda

## URTARRILA:

**22** **SAN SEBASTIKO JAIAK** San Sebasti auzoan.
Mezea, bertsolariak eta dastatze gastronomikoa.
Antolatzailea: San Sebastiko Jai Batzordea.

*Domeka guztietan ZINEA Donibane Aretoan. 16:30ean umeentzakoa eta 19:00etan helduentzakoa.

## OTSAILA:

**5** **SANTA AGEDA** Ibarra auzoan.
Mezea Olarten eta jana/edana Ibarrako Udal Txokoan.
Antolatzailea: Ibarrako Jai Batzordea

**19** **KANPORAMARTXO**
Antolatzailea: Itxinape M.T.

**24** **ARATOSTEAK**
Donibane Aretoan ekitaldia.

**26** **SAGARDOTEGIRA** joan etorria
Antolatzailea: Itxinape M.T.

*Domeka guztietan ZINEA Donibane Aretoan. 16:30ean umeentzakoa eta 19:00etan helduentzakoa.

## MARTXOA:

**3-8** **EMAKUMEAREN EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK**
Antolatzailea: Matxintxu Emakumeen Elkartea

*Domeka guztietan ZINEA Donibane Aretoan. 16:30ean umeentzakoa eta 19:00etan helduentzakoa.

CLINICA DENTAL
Dr. Joaquin Petralanda
Horario continuo 94 661 04 19
Orozko (Vizcaya)
* Ortodoncia (niños y adultos)
* Implantes y prótesis
* Diagnóstico gratuito con radiografía digital
* PADI (plan de asistencia dental de Osakidetza)